

GREBA



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya

LAN ERREFORMAK URTEBETE EGIN DU

AUNQUE NO CUENTES CON RECURSOS, CUENTAS CON UN ABOGADO/A

Todas las personas tienen
derecho a asistencia jurídica

**Consulta
con tu abogado/a**



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

2 012ko otsailean, Espainiako gobernuak azken lan-erreforma onetsi zuen, lan-merkatua arindu nahi zelako eta, modu horretan, langabezia-tasa handiari aurre egin nahi zitzaiolako.

Erreforma hori onetsi eta urtebetera, datuak erabakigarriak dira aipatu araudiaren arrazoen artean azaldutako helburuak porrot egin duela erakusteko.

Erreforma hori onesteko justifikazio moduan argudio asko erabili ziren, besteak beste, helburu batzuk lortzea –sistemak eskuratzen zirenen erreminta berriekin erdiesteko modukoak zirenak-, esaterako lan-ezegonkortasuna murriztea eta egonkortasuna handitzea kontratu mugagabeak zituzten langileen kasuan, kaleratzeen aurka borrokatzea soldata egokitu eta soldata nahitaez murriztea Espainiako enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta esportazioen gorakada sustatzeko.

Helburu horiek iragarri eta ez-eraginkorra, arriskutsua eta bidegabea izango zela ikusten zen erreforma baten justifikazio moduan eman arren, emaitza kontrako aizan da, hain zuzen ere, gaur egungo lan-ezegonkortasunaren maila erreforma hori indarrean sartu zenean baino tamalgarriagoa izatea. Erreformak, helburuak ez lortzeaz gain, lan-merkatuan segmentazio handiago eragin du, baita enpleguan behin-behinekotasunaren tasa mantentzea ere: 2012an %24koa izan da.

2012ko martxoa eta urria bitartean, baimendutako EEEk ukitutako langileak 313.011 izan dira. Zifra horrek erabat gainditzen ditu aurreko urteetako aldi berean izandakoak. 2011ko aldi horretan, zifra 205.97 izan zen, eta 2010eko aldi berean, ukitutako langileak 179.412 izan ziren. 2012an, kaleratzeen maila krisia hasi zenetik gehiengo izatera iritsi zen (50.753 langile ukituta). Eta aldi baterako EEEk eta lanaldia-murriztekoek ere gora egin zuten etengabe: 2012ko martxoa et aurria bitartean %60tik gora hazi ziren, 2011ko aldi berarekin alderatuta.

Era berean, lan-erreforma onetsi denetik 670.000 langabe gehiago daude, eta langile okupatuen kopurua murriztu egin da 2012ko lehen hiru hiruhilekoetan: 487.000 langabe gutxiago, 342.000 sektore pribatuan eta 144.000 sektore publikoan.

Hitzak soberan daude, datuak ikusita, gure bizitzaren eta gure patuen zati handi bat kudeatzen dutenen aurrean desilusioa eta etsipena, inpotentzia eta haserre ere soberan baitaude. Harridura alde batera utzi eta aurrera egiten, sortzen, asmatzen, zuzentzen, elkarbanatzen eta borrokatzen ahalegintzea besterik ez daukagu.

En febrero del pasado año 2012 el Gobierno español aprobó la última Reforma Laboral, hasta la fecha con el argumento de que se pretendía agilizar el mercado de trabajo y combatir, de esta forma, la elevada tasa de desempleo.

Un año después de la aprobación de dicha Reforma los datos resultan determinantes para mostrar el fracaso del objetivo expuesto entre los motivos de la referida normativa.

Fueron varios los argumentos que sirvieron de justificación para la aprobación de dicha Reforma, entre ellos, la consecución de unos objetivos -alcanzables con las nuevas herramientas de las que se dotaba el sistema-, tales como la disminución de la precariedad laboral y el aumento de la estabilidad para los trabajadores con contratos indefinidos, la lucha contra los despidos mediante los ajustes salariales y la inevitable y reiterada reducción salarial para mejorar la competitividad de las empresas españolas y la promoción del aumento de las exportaciones.

A pesar de que estos fueron los objetivos más anunciados y expuestos como justificación de una reforma que ya se aventuraba como ineficaz, y cuanto menos peligrosa e injusta, el resultado ha sido precisamente el contrario, encontrándonos en la actualidad con unos niveles de precariedad laboral aún más lamentables que en las fechas de entrada en vigor de dicha Reforma que no sólo no ha alcanzado sus objetivos sino que ha conseguido una mayor segmentación en el mercado laboral, y el mantenimiento de una tasa de temporalidad en el empleo, que durante el año 2012 ha permanecido constantemente en el 24%.

Entre los meses de Marzo y Octubre del año 2012, el número de trabajadores afectados por EREs autorizados ha sido de 313.011, cifra que supera de forma escandalosa a las producidas en el mismo período de años anteriores. Durante ese período del año 2011 la cifra fue de 205.97, y en el mismo período del año 2010 la cifra de trabajadores afectados fue de 179.412. Los EREs, extintivos (despidos) alcanzaron en 2012 el nivel máximo desde el inicio de la crisis (50.753 trabajadores afectados). Y los EREs suspensivos o temporales y de reducción de jornada también se dispararon, creciendo más de un 60% entre marzo y octubre de 2012 respecto al mismo período de 2011.

Asimismo, hay que señalar que el incremento del número de parados desde la aprobación de la reforma laboral ha sido de 670.000, y el número de trabajadores ocupados se ha reducido durante los tres primeros trimestres del año 2012 en 487.000 personas, 342.000 en el sector privado y 144.000 en el sector público.

Sobran las palabras cuando los datos hacen que también sobre el desencanto y la desesperación, la impotencia y el enfado con aquellos que gestionan gran parte de nuestra vida y gran parte de nuestros destinos. Solo nos queda salir de nuestro estupor y tratar de avanzar, de crear, de inventar, de corregir, de compartir y de luchar.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M^{ra} del Prado Guzmán López
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva
Mutualista desde 2008

Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	Todos los beneficios para el mutualista¹
Gestión independiente de las inversiones	Persiguiendo siempre la máxima seguridad
Rentabilidad para tus ahorros	4,5% en 2012 + complemento a final de año²
Tus seguros de vida a menor coste	Gracias a nuestra especialización
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	Con nuestro Club Privilegia
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	De previsión complementaria y seguros personales
Gestión profesional	Compatible con la autogestión por los abogados
Costes reducidos	Estructura simple y distribución directa
Tecnología	Web interactiva para cualquier trámite o consulta
Transparencia	Información trimestral, y diaria en la web

Para más información entra en
www.mutualidadabogacia.com

escribe un e-mail a
buzon@mutualidadabogacia.com

o llama al Servicio de Atención al Mutualista
902 25 50 50

1. Los resultados de la Mutualidad revierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

2013ko martxoa

06

BERRIAK

10

INFORMAZIOA

*Doako justizia eta Tasen Legea
eztabaidagai Gazteizko legebiltzarrean*

*Doako justizia eta tasen legea
Gazteizko Legebiltzarrean*

Ofiziozko txandaren azken berriak

13

OTORDUA

14

JARDUNALDIAK

*Carlos Ruíz de
Gordejuela jardunaldien XV. Zikloa:*

22

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA


24

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

KULTUR ERANSKINA

06



JUSTIZIA ETA BARNE MINISTROEN KONTSEILUA BRUSELAN

Kontseiluak esparru zibilerako gehitu du biktimen defentsa, bereziki, genero-indarkeriaren biktimena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua baieztatu da arlo zibileko babes-neurriak elkarri aitortuko dizkiotela. Horren ondorioz, arlo penaleko neurriekin homogeneizatuko dira estatu kide guztietan.



2013ko martxoaren 8a.- Europar Batasuneko Justizia eta Barne ministroek, Bruselan bilduta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua onetsi zuten, **biktimen-tzako arlo zibileko babes-neurriak elkarri aitortzearen** inguruan; onurarik handienak **genero-indarkeriaren** biktimei izango dituzte. Akordio hau biktimen babesean beste pauso bat ematea da, orain osatu egin baita **Espainiak** Europar Batasunaren **lehendakaritza bere**

gain hartzean bultzatu zuen **babeserako euroagindua**, 2010ekoa. Euroagindu hori Europako babes aginduari buruzko abenduaren 13ko 2011/99 Zuzentaraua bihurtu zen. Erregelamendu hau 2015eko urtarrilaren 11tik aurrera hasiko dira aplikatzen.

Espainia izan da Europar Batasunean biktimei zuzendutako tresnak izatearen alde egon den herrialdeetako bat, nor-

malean akusatuarengan edo erruztatuarengan oinarritzen zen tradiziozko ikuspegia aldatuz. Gaur onetsitako erregelamenduan **herrialde guztiek agindu zibilak aitortzeko mekanismo automatikoa** ezarri da. Estatu kide batzuetan horiek erabiltzen dira biktimei babes neurriak ezartzeko, baina Espainian arlo penalean soilik ezartzen dira.

Babes zibilerako aginduak aitortzeko, pasaporte moduan **babestutako pertsonari emango zaion ziurtagiria** erabiliko da; pertsona horrek ziurtagiria **zein herrialdetara joan eta bertan erabili ahal izango du**. Erregelamendua mota guztietako biktimei zuzenduta dago, ez bakarrik genero-indarkeriaren biktimei, azken horiek hartzaile nagusiak izan arren.

Espainiako ordezkariaren esanetan, babes-neurriak elkarri aitortzeko duela hiru urte baino gehiago hasi ziren lanean. Helburua zen mota guztietako indarkeriaren biktimek estatu kide batean zuten babesari eustea lekualdatzeko askatasun legitimoaz gozatzeko zutenean. Ordura arte, biktimak bidaiatu ahal zuten, baina babes-neurriak ez.

Ministroa pozik agertu zen erregelamendua onetsi zelako, nahiz eta lan guztiak amaitu gabe egon. Ildo horretatik, Espainiako ordezkariak adierazi zuen beharrezkoa dela mekanismoak praktikan nola funtzionatzen duen aztertzea eta akatsak zuzentzeko perfektionatzea. Azken xedea etxeko indarkeria eta genero-indarkeria errotrak eraztea da, indarkeria modu onartezinak baitira.

Datuen babesa

Lan-bileran, ministroek **datu pertsonalak babesteari buruzko erregelamendu proposamena** aztertu dute, arlo horretan **arau-esparru bakarra** sortu nahi baitu, babes egokia eta Europar Batasun osoan datuen zirkulazio askea bermatuz.

Ministroaren esanetan, **Espainia bat dator datuen tratamenduan babes maila handiari eutsi behar zaiola**, baina "nahi ez diren zama burokratikoak saihestuz".

Era berean, Ruiz-Gallardónek adierazi zuen beharrezkoa dela jokabide-kodeak eta ziurtagiriak ezartzea malgutasun osagaiak sartzeko, babesaren kalitatea gutxitu gabe. Modu horretan, arriskuak saihestu eta tratamendu batzuk errazten dira, nazioarteko transferentziak barne hartuta. Amaitzeko, bere esanetan, beharrezkoa da Europan garatutako oden babes-sistema erkideak sektore publikoaren konplexutasuna kontuan hartzea arauketa horren beharrezanetara eta enpresa txiki eta ertainen beharrezanetara egokitu ahal izateko.

Horrez gain, Europako Justizia eta Barne ministroek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena aztertu zuten, hain zuzen ere, faltsutzearen aurka euroa eta beste txanpon batzuk modu penalean babesteari buruzkoa. Zuzentarau horren bidez, 2000/383 esparru-erabakia ordeztu nahi da.

Ruiz-Gallardónen berbetan, Espainiak babestu egiten du gaur egungo babes penalaren esparrua indartzea eta hobetzea; izan ere, bere esanetan, **"euroa defendatzea, eta segurtasunaren sinonimo bihurtzea, Europako espazioak nahitaez proiektatu behar dituen konfiantza eta ospea indartzea bestekoa da"**.

"Zentzugabekeria izango litzateke estatu kideek beste esparru batzuetan gure txanpon bakarrari egonkortasuna emateko egiten ari diren ahaleginarekin batera mota honetako ekimenak egingo ez bagenitu; izan ere, xedea euroa ez ahultzea da, tentazioa izan dezaketenen delitu-jarduera dela bide, bai hutsuneak daudelako bai legegintza-deskoordinazioa dagoelako", adierazi zuen.

BAZKUNeko TXAPELKETAk. DEIALDIA.

Urtero bezala, Kirol Batzordeak Bazkune-ko kirol txapelketak antolatu behar ditu. Beraz, parte hartzeko gonbitea egiten dizuegu. Saria ureko bazkarian banatuko dira.

Futbitoa- Koordinatzailea JAVIER COR-TAZAR; tel.: 94-4050035 (16:30-19:00).

Paddlea- Koordinatzailea JAVIER IBA-

ÑEZ BIZUETA; tel.: 94-4216027.

Emakumezkoen paddlea- Koordinatzailea JOSUNE LOPEZ EZKURDIA; tel.: 94-4245711.

Kontinental (karta-jokoa)- Koordinatzailea JOSUNE LOPEZ EZKURDIA; tel.: 94-4245711.

Saskibaloia- Koordinatzailea ADOLFO

RON HERRERO; tel.: 94-4235970.

Musa- Koordinatzailea JAVIER BOLADO ZARRAGA; tel.: 94-4356206.

Xakea- Koordinatzailea JAVIER IRUARRI-ZAGA; tel.: 944276924.

Golfa- Koordinatzailea RICARDO ZARRAUZ; tel.: 944103330.

EB-ko BERRIAK

EUROPAKO AUZITEGIEN ESTADISTIKAK 2012

EBko justizia-auzitegiek 2012ko estatistikak aurkeztu dituzte. Oro har, produktibitate eutsia izan dute eta eraginkortasuna modu esanguratsuan hobetu dute prozeduren iraupenari dagokionez. Horrez gain, hiru jurisdikzio-organoen aurrean jarritako auzien kopuru orokorrak apur bat behera egin du (1.427 2012an eta 1.569 2011n). Azken bost urteetan auzibideak izandako bilakaera kontuan hartuta, izaera kointurala izan dezake horrek. 2012an, EBJAk 595 auzi amaitu zituen eta 632 auzi berri hartu zituen. Aurkeztutako auzi kopuruak oso handia izaten jarraitzen du, baina 2011. urtearekin alderatuta %8 inguru egin zuen behera (688 auzi jarri ziren). Hori azaltzen da batez ere aurreko urtearekin alderatuta EBJAren epaien aurka kasazio-errekurtso gutxiago jarri direlako. Epaitu aurreko arazoei dagokionez, 2012an EBJAren historia osoan izandako bigarren zifrarik handiena da. Prozeduren iraupenari dagokionez, datu estatistikoak oso positiboak dira. Epaitu aurreko arazoei erreparaturik, iraupena 15,7 hilekoa da. Beraz, epaitua urreko arazoak izapidetzeko batez besteko iraupena historiari baxuena izan zen 2012an.

PRODUKTU KOSMETIKOAK ANIMALIEKIN ESPERIMENTATZEKO DEBEKUA

Europako Batzordeak komunikazio bat atara du produktu kosmetikoak animaliekin esperimentatzea apurka-apurka baztertzearren azken fasea Europan indarrean jartzeari buruz. Martxoaren 11tik aurrera Europar Batasunean ezin izango da merkaturatu animaliekin esperimentatu den produktu kosmetikorik. Komunikazio horretan, Batzordeak konpromisoa berretsi du Kontseiluak eta Parlamentuak 2003an finkatutako epea errespetatzeko eta azaldu du zein modutan babestuko dituen ikerketa eta berrikuntza sektore horretan eta aldi berean nola sustatu duen mundu guztiko animalien ongizatea.

ADINEKO LANGILEAK

Europako Kontuen Auzitegiak txosten berria argitaratu du Europako adineko langileei buruz. Txostenaren arabera, estatu kideek eta Batzordeak ezin dute zehaztu adineko zenbat langilek lortu dituzten kualifikazio berriak edo lanpostua aurkitu edo gorde duten Europako Gizarte Funtsak finantzatutako ekintza baten onurak lortu ondoren. Kudeaketa-agintari gehienek ez dituzte ezarri gai horiei buruzko informazio bidezko eta bidagarria emateko beharrezko tresnak. Adineko langileen enplegu-tasa handitzea EBren helburu estrategikoetako bat da. Europako Gizarte Funtsa finantza tresna giltzarria da, estatu kideei EBko enplegu politikaren helburuak betetzen laguntzeko. Xedea

langabeak eta beharrezkoak duten pertsona klan merkatuan integratzen laguntzea da, batez ere prestakuntza jarduerak babestuz. 2007tik 2013. urtearen amaierara, Europako Gizarte Funtsaren gastua 75.000 milioira igoko da, et ahoi EBko aurrekontu guztiaren %8 inguru da. Europako Kontuen Auzitegiak fiskalizatorako 6 programa hautatu zituen, 222 milioi euroko balioarekin, 4 estatu kide barruan hartzen dituztenak (Alemania, Italia, Polonia eta Erresuma Batua).

EBKO HERRITARREN USTEZ, GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN EMAKUME GEHIAGO EGONGO BALIRA BOTEREAN, ALDAKETA POSITIBOA IZANGO LITZATEKE

2013ko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu ondoren, Eurobarometroaren inkesta berri baten arabera, europarren %78ren ustez, garatze bidean dauden herrialdeetan botere politikoa emakume gehiagoren esku egongo balitz, «gauzak hobetu egingo lirateke».

Izatez, inkestari erantzun dioten guztien artean hiru laurdenen ustez, garatze bidean dauden herrialdeetan emakume gehiago lider izango balira, giza eskubideen errespetua hobetuko litzateke; %72ren arabera, bizi baldintzak hobetuko lirateke eta %65en ustez gatazkak eta gerrak prebenituko lirateke.

Hamar europarretik bederatzik baino gehiagok uste dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak hobetu egiten duela gizarte funtzionamendu orokorra eta laguntza-programa guztiek emakumeen eskubideak kontuan hartu behar dituztela.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetako arazoak gizon eta emakumeengan duten eraginari dagokionez, inkestari erantzun dioten gehienek ustez, emakumeengan eragin gehiago dute, indarkeria fisikoarengatik (%83), hezkuntzan sartzeko arazoengatik (%63), oinarritzko giza eskubideak ez betetzeagatik eta enplegurik eta diru-sarrerarik ez izateagatik (%61).

Andris Piebalgs EBko Garapen komisarioak hurrengo esan du: «*Emakumea egiten dugun guztiaren erdian jartzen dugu, eta gure laguntza-programek emakumeak arlo guztietan kontuan har ditzaten ahalegintzen gara, hots, hezkuntzan, osasun-laguntzan, nekazaritzan eta energian; hori dela eta, postu egiten naiz europar gehienak planteamendu horrekin ados daudela jakitean*».

Eta hau gehitu du: «Era berean, interesgarria da ikustea askoren ustez emakumeak boterean egoteak aldaketa positiboa ekar dezakeela. Ezinbestekoa da emakume guztiek haien potentziala aprobetxatzeko aukera izatea, leku batean zein bestean bizi».

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, emakumeak bereizkeria larrien biktima izaten jarraitzen dute, eta arrisku larriak dituzte osasunari dagokionez, batez ere amatasunari lotuta. Indarkeriak emakume guztien

heren bati eragiten dio. EBk eginkizun garantzitsua du emakumeak eta neskatoak gauzatzen laguntzeko.

2004tik, Batzordearen laguntzari esker:

- 85 000 neskatok baino gehiagok egin dute matrikula bigarren hezkuntzan.
- 4 milioi erditzetan baino gehiagotan osasun langileak egin ziren.
- Ugaltze-osasunari buruzko 10,8 milioi kontsulta egin ziren.

Testuingurua eta emaitza nagusiak:

Emakumeen Nazioarteko Egunean, Europako Batzordeak Eurobarometroaren inkesta bat aurkeztu zuen Europako herritarrek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz eta garatze bidean dauden herrialdeetan emakumeak gaitzeko beharrezkoak buruz dituzten iritziekin. Inkesta egiteko, 27 estatu kideetako 25 000 herritarri baino gehiagori egin zitzaizkien galderak.

Hamar europarretik bederatziren ustez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak gizarte funtzionamendua hobetzen du eta laguntza-programa guztiek emakumeen eskubideak kontuan hartu behar dituzte. EBN gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko emaitzen aldaketa oso txikia izan zen. Zifrarik handienak Suedian, Herbeheretan eta Errumanian jaso ziren (%96 guztietan), eta txikiak, Letonian, Eslovenian (%87 bi herrialdeetan) eta Estonian (%86).

Or ohar, EBN inkestari erantzun ziotenen ustez, emakumeei gizonazko bako bako gehiago eragiten dieten arazoak dira indarkeria fisikoa (%83), hezkuntzan sartzeko zailtasunak (%63), oinarritzko giza eskubideak ez betetzea eta enplegurik eta diru-sarrerarik ez izatea (%61).

Gosea eta malnutrizioa (%50) eta GIB/HIESA (%59) izan ziren EBko herritarren ustez gizonazko bako bako gehiago eragina duten arazo bakarrak.

Europarren arabera, emakumeak eragin handiko karguetan eta botere politikoko karguetan egongo balira, horrek eragin positiboak izango lituzke garatze bidean dauden herrialdeetan. Giza eskubideen errespetua izan zen EBN erantzun positibo gehien jaso zituen osagaia. Herritarren hiru laurden baino gehiagoren ustez, boterean emakume gehiago egongo balira «gauzak hobetu egingo lirateke» (%78). Ondoren, herritarren %72k eta %65ek hurrenez hurren gauza bera pentsatzen dute pertsonen bizi-baldintzei eta gatazken eta gerren prebentzioari buruz. Suediar, finlandiar eta irlandar gehienek ustez, boterean emakume gehiago egongo balira «gauzak hobetuko lirateke».

DOAKO JUSTIZIA ETA TASEN LEGEA EZTABAIDAGAI GAZTEIZKO LEGEBILTZARREAN

Joxean Lozano eta Julen Arzuaga, abokatuak eta EHBilduko legebiltzarkidea

Orain dela gutxi, zuzenbidearen beste esparru batera salto egin dugu. Lehen arauak interpretatu egiten genituen, justizia jomuga izanik; orain, berriz, legegintzan ari gara, asmo berberarekin. EHBilduko taldeak Herritarren askatasunak izeneko atala sortu du horretarako. Bertan zuzenbideko hainbat eragile justizia eta segurtasuna lantzen ari dira. Alabaina, jakin badakigu bi ideia horiek askotan elkarren kontra daudela.

Horrenbestez, Legebiltzarreko eztabaidetan parte hartzen hasi gara. Lehenetarikoa doako justiziaren eta taseen legearen inguruan izan da. Gai horrekin abokatuak eta bezeroak estu eta larri daude, eta irtenbide azkarra eskatzen du. Eztabaida saioa aurtengo urtarrilaren 31n izan zen.

dituztenen alde aritzen diren legelariena. Jakin bagenekien lan horren baldintzak ezagutu beharrekoak zirela administrazio eskumendunen aldetik eta behar bezala ordainduak.

Gure herrialde txiki honetan doako justiziaren gaiak hainbat fase izan ditu. Fase horietan guztietan nola edo hala doako justizia gauzatu da. Justiziaren inguruko eskumena Estatuari dagokio neurri handi batean eta hemen Estatuaren oinarriko legeria garatu behar da. Datu hori ezin da ahaztu. Beste datu bat: Madrilen Doako justiziari buruzko lege aurreproiektu bat izapidetzen ari dira, hain zuzen ere, Estatu osoan aplikagarria izango dena.

Gure artean gaia 1/1996 Dekretuaren bidez garatu zen. Hobeto egin zitekeen baina araugintza berria, behintzat, eraginkorra izan zen. Horren gainean ezarri ziren une honetan indarrean dagoen 110/2012 dekretuaren gabeziak. Jaio orduko, tirabirak sortu zituen Jaurilaritzaren eta Justizia Administrazioiko eragileen artean. Aplikatzean, LJEko bulegoetan nahasmena zabaldu zen. Dekretu berriak legelarietara egin behar ez zuten lana egitera bultzatu zituen. Laidoa eta eraginkortasunik eza nagusi, dekretua martxan hasi zenean.

Talde Popularra (PP) lege izaera ez duen proposamen aurkeztu zuen. Hartzeko modukoa da baina bat etorri ginen proposamen horrekin: aurrenik, Doako Justiziari buruzko 2012ko Dekretua eta dekretua eman zuen Jaurilaritza kritikatzeko eskatzen zion. Beraz, 1996ko arauketa berriz ere indarrean sartuko zen. Planteamendu hori egokia irudituko zitzaigun. Gasteizko Legebiltzarrak argi eta garbi hori esatea nahi genuen; horrenbestez, Jaurilaritzak tresna juridiko bat erabilita (xedapen orokorren tresna, alegia); horretarako Jaurilaritzak dekretu berria eman behar zuen edo indarrean zegoena goitik behera erreformatu, aurreko dekretuaren alde onak kontuan hartuta. Horixe izan zen baita ere Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren iritzia.

Hala ere, PPK EAJrekin erdibideko zuzenketa bat adostu zuen. Horren edukiak adierazpen hutsaren balioa zuen: doako justiziaren eskubidearen aldeko aldarrikapena eta ukitutako eragileekin elkarrizketatzeko asmoa. Dekretua edukien aldetik aldatzea ekarriko zuen erreforma baztertua gelditzen zen. Ekimena ez zen nahikoa arazoari aurre egiteko eta EHBildu abstenitu egin zen halaberrez. Ofizioko txandaren inguruan dagoen ilunpea ezin da neurri ustelekin argitu.



Hurrengo lerroetan saio hori nola bizi izan dugun azalduko dugu.

Doako justizia, gure ustez, zuzenbideko estatuaren ezinbesteko osagaia da. Gainera, justiziara iristeko aukera denok izan behar dugu eta herri administrazioek aukera hori bermatu behar dute, baita ordaintzeko diru nahiko ez dutenentzat ere. Horiek dira gure abiaburuak. EHBildu taldeak lankide diren abokatuaren ikuspuntua gehitu nahi zuen, hain zuzen ere, guardiako txandan baliabide gutxi

Handik gutxira, Euskal Sozialistak taldearen Tasa Judizialen Legeari buruzko legez besteko proposamena eztabai-datu zen. Lege horrek Justiziaren inguruko eragile guztien kritikak eragin ditu. Sozialisten ekimena, egia esan, abia-buruen adierazpen hutsa baino ez zen; horren arabera, PSEk Espainiako Gobernua behartu nahi zien neurriak pre-saz hartzera, lege hori erabateko gehiengoarekin onartu zelarik.

Kasu horretan ere, EHBilduren asmoa zen adierazpen antzurik ez egitea. Hain zuzen ere, beste zantzu batzuk ikusi genituen. Patxi Lopezen gobernuak, 2012ko abenduaren 4an kazetarien aurrean iragarri zuenez, Konstituzio aurkakotasun errekurtsioa jarri behar omen zuen. Baina ez zuen jarri. Idoia Mendiak ekimen horren arduraduna zen baina telefonoa ez zuen hartu zerbitzu juridikoei deitu eta errekurtsioa martxan ipintzeko.

Aldi berean, urtarilaren 18an Bizkaiko Abokatuen Bazkuan antolatutako jardunaldi batean Tasen Legearen bali-zko konstituzio-aurkakotasunaren abiaburuak ezarri ziren. Hizlari batek, hain zuzen, Emilio Olabarriak honakoa eska-tu zuen: "galdatzea legitimazio prozesala duenari, konsti-tuzio-aurkakotasun errekurtsioa ipintzeko". Ondorioz, PSE eta EAJren berariazko sostengua bagenuen adierazpen huts bat baino, neurri substantiboa hartzeko.

Aldaketa bat aurkeztu genuen, Legebiltzarreko Araudiaren

226. art.an oinarrituta. Horren xedea: Legebiltzarrak konstituzio-aurkakotasun errekurtsioa aurkeztea Tasen Legearen kontra. Beraz, neurri eraginkorrak. Baina, berriz ere, alfer-alferrik. EAJk sozialistekin erdibideko zuzenketa bat adostu zuen hasierako zuzenketa aldatzeko. Hitz politik eta ahozko konpromisoak, Espainiako Gobernura bidaliak; gure proposamena ezerezean gelditu zen.

Laburbilduz, joko politikoak itxura eskasa du. Doako Justiziari buruzko Dekretua PSErena da eta Tasen Legea PPrena. Beraz, biek argi eta garbi interesa dute bestea jipointzeko. Harrigarriagoa da Euzko Abertzaleak Taldearen jarrera, izan ere, hasieran baten alde eta gero bestearen alde egin zuen. Horrela, Legebiltzarra adierazpen hutsetan geratu zen, edozein neurri zehatza oztopatuz. Aldiz, EHBildu neurri zehatzen aldekoa da aurrerantzean ere (batetik, Dekretua indargabetzea eta eraldatzea; bestetik, konstituzio aurkakotasun errekurtsioa jartzea). Kasu horretan, Legebiltzarreko talde horien oztopo lana gure aldeko lana baino eragingarriagoa izan da.

Hori dela eta, legelariengana jo nahi izan dugu zuzen-zuzenean. Alegia, gure hitzekin adierazteko Legebiltzarrean zer gertatu den eta nora ailegatu garen. Bide batez, herritarrek babes judizial eraginkorra izateko eskubidea tinko defendatuko dugula esan nahi dugu. Maiz tokatuko zaigu gai hori jorratzea, justizia arloan ez dugu eskumenik eta.




La salud lo es todo y con IMQ tienes todo para cuidarla

Tú eres nuestra razón de ser. Por eso, tenemos para ti un seguro médico con todo lo que necesitas:

- La red sanitaria más extensa y la tecnología de vanguardia, sin esperas
- Completa cobertura sanitaria
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes*
- Descuentos: 4% por pago anual y 5% para 5 o más beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

Exclusivo abogados desde 45,04 €/persona/mes



Tu seguro médico

902 311 902 agencia@imq.es www.imq.es

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Oferta exclusiva para miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2013. R.P.S.: 143/12

ENPLEGU IRREGULARRAREN ETA GIZARTE SEGURANTZARI EGINDAKO IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIAK

2012. urtearen amaieran zenbait neurri onetsi ziren, besteak beste, goian aipatutakoa. Zenbait gizarte-alderditan hainbat berrikuntza gehitu zituzten.

1) ENPLEGU IRREGULARRAREN ETA GIZARTE SEGURANTZARI EIGINDAKO IRUZURRAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO 13/2012 Legearen bidez GSLO aldatu egiten da. Horren arabera, zehapenak murriztuko dira soil-soilik likidazioaren zenbatekoak hasieran proposatutako zehapena gainditzen duenean. Modu horretan, egoera batzuk saihestu egingo dira, hain zuzen ere, likidazio akten zenbatekoak txikiak zirenean, arduradunak hartzen zituenean, administrazioak beharpen garrantzitsua egiten zuen, modu horretan, 30/1992 Legearen 131.2 artikuluan araututako proportzionaltasun printzipioa urratuz.

Langabeziaren ondoriozko prestazioak iruzurrak saihesteko, lan-kontratuak eteten diren kasuan edo arrazoi ekonomikoengatik, arrazoi tekniko-antolaketagoengatik edo ekoizpenari lotutakoengatik edo ezinbestean lanaldia murrizten denean, enpresaburuentzat beste betebeharrak ezarri da. Erakunde kudeatzaileari jakinarazi behar dizkio langabeziaren ondoriozko prestazioa, hasieran aurreikusietako egutegian dauden aldaketak edo lanaldi-murrizketari dagokion xehetasuna, murrizketa hori egin aurretik (2.2 art.).

Betebeharrak ez betetzea arau-hauste larria izango litzateke. Modu berean, arau-hauste larria da kontratuak eteteko neurriek edo lanaldi-murrizketek ukitutako langileei lana ematea aldi horietan.

13/2012 Legearen 3. artikuluan Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzaren Antolatzeko Legea aldatzen da. Ikuskaritzari ahalbidetu egiten zaio erabilgarritasuna duten indize eta datu-baseetan sartzea Notariotzaren Indize bateratuarekin. Era berean, zehapen- edo likidazio-prozeduraren aurreko egiaztatze-jardunen iraupen epea handitu egiten da.

Aipatu legean Laneko eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek lankidetzan aritzeko betebeharrak dutela arautu da, RETAn egiten dituzten eginkizun alternatiboek dagokienez.

Bestalde, jakinarazpen-prozedura bizkortu egiten da Laneko eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren ediktuen ohelean berriak jarrita. Hala ere, hori ez da abian jarriko agindu baten bidez garatu arte.

13/1992 Legearen 4. artikuluan, Lan arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen agindu batzuk aldatzen dira, zehatz esanda:

ARAU-HAUSTE ARINEI DAGOKIENEZ: esanbidez tipifikatu da enpresaburuak kasuan kasuko erakundeei epez kanpo jakinaraztea eman beharreko datu ziurtatuak eta adierazpenak (LAZLren 21.4 eta 5 art.).

ARAU-HAUSTE LARRIEI DAGOKIENEZ: zerrendatu egin da konkurtsoa dela bide edo ezinbestean zein kasutan den posible kuotak ez ordaintzea, ikuskaritza-jarduna hasi aurretik (LAZLren 22.3 art.).

Zehatzeko moduko jarreraren barruan sartzen dira murrizketen onuradun diren enprekin lotutako ez-betetzeak, ezbehar kopurua murrizten laguntzen dutelako (LAZLren 22.9 art.).

Arau-hauste larriak dira obrak edo zerbitzuak kontratatu edo azpikontratatu dituzten enpresaburuak ez egiaztatzea okupatutako langileen Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta (22.11 art.).

Arau-hauste larrien artean tipifikatzen da alta eta kotizazio betebeharrak ez betetzea izapidetze soldaten eta gozatu gabeko oporren kasuetan, lan-lotura amaitu aurretik (LAZLren 22.12 art.).

Era berean, hasierako egutegian aldaketak egonda erakunde kudeatzaileari komunikatzeko betebeharrak ez betetzea tipifikatuta dago, kontratuak eten edo lanaldia murrizten den kasuetan (LAZLren 22.13 art.).

Arau-hauste larria izango da pentsioen edo aldiakako beste prestazio batzuen onuradunak edo eskatzaileak kontratatzea, horiez gozatzea bateraezina bada inoren konturako lanarekin (LAZLren 22.14 art.).

OSO LARRIEI DAGOKIENEZ: bereizita tipifikatzen dira dokumentuak aurkeztu gabe kasuan kasuko kuotak ez ordaintzeari eta langileen kuota modu bidegabean gordetzeari lotutako arau-haustek (LAZLren 23.1.b eta K) eta kontratuak eteteko neurriek edo lanaldia murrizteko neurriek ukitutako langileak kontratatzea neurri horiek aplikatzen diren aldian (LAZLren 23.1.j art.).

Zehapenei dagokienez: kotizaziorik ez egotearen ondoriozko iruzur kasuetan zehapenak mailakatzeko irizpideak ezartzen dira ordaindu gabeko zenbatekoaren arabera. Azken hori zenbat eta handiagoa izan, zehapena ere handiagoa izango da (LAZLren 39.2 art.).

Zehapenak ukitutako langileen kopuruaren modu proportzionalan handitzen dira, ekonomia irregularraren eta iruzurraren egoeretan, langileen talde jakin batean eragina badu (LAZLren 40.1.e art.).

2) 7/2012 Lege Organikoaren bidez, Zigor Kodean aldaketak egiten dira, lan arloko hainbat alderditan;

Pertsona juridikoen erantzukizun araubidearen barruan alderdi politikoak eta sindikatuak sartzen dira. Horiek haien lege ordezkariek eta administratzaileek edo horien mendekoek, haien kontura eta haien mesedetan, egindako legez kanpoko jardunen erantzule penalak izango dira, jardun horien gaineko kontrol egokirik egin ez denean (ZKren 31.bis 5 art.).

Gizarte Segurantzaren aurkako delituen kasuan, delitutzat jotzen da 50.000 eurotik gorako kopuruaren inguruan iruzur egitea 4 urte naturaletan. Tipifikatutako zenbatekoa asko



944 42 53 59
WWW.GPNOR.COM

GPNOR SERVICIOS PERICIALES

Valoraciones de la construcción. Valoración de incendios. Peritaciones de parte. Valoración de Responsabilidad Civil. Valoración de empresas. Accidentes de tráfico. Valoración de bienes muebles e inmuebles. Valoración de daño corporal. Inspección técnicas. Balística.

murriztu da, lehen 120.000 euro baitzen urte natural batean.

Zigor osagarri moduan gehitu da diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera eta etekin edo pizgarri fiskalak edo Gizarte Segurantzarenak jasotzeko eskubidea galtzea 3 eta 6 urte bitartean (ZKren 307. art.).

307.bis artikulua arabera, tipoa astundu egingo da: 2 eta 6 urte bitarteko espetxe zigorra egongo da, iruzurreko kuota bider seiren bikoitza isun moduan jarriko da eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera edo etekin edo pizgarri fiskalak edo Gizarte Segurantzakoak eskuratzeko aukera galduko da 4 eta 8 urte bitarteko aldian, betiere, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

Iruzurreko kuotaren zenbatekoa 120.000 eurotik gorakoa izatea.

Iruzurra erakunde edo talde kriminal baten barruan gertatzea.

Pertsona fisikoak edo juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak, tresna fiduziarioak edo paradisu fiskalak edo tributazio gabeko lurraldeak erabiliz Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrekoaren edo delituaren erantzulearen nortasuna ezkatzea edo nortasun hori agerian uzteari trabak jartzea, iruzurreko zenbatekoa ezkatzea edo tributu betebeharrekoaren edo delituaren erantzulearen ondarea zehazteko oztopoak jartzea.

Gizarte Segurantzako prestazioetan iruzurra egiteren ondoriozko delituei dagokienez, delituzat jotzen da norberarentzat edo beste batentzat lortzea Gizarte Segurantzako prestazioak, horiek bidegabe luzatzea edo beste batzuei akatsen bidez prestazioak lortzea erraztea, egitateen simulazioa edo desitxuratzeta eginda edo informatzeko betebeharra bete

gabe egitateak ezkatuta, modu horretan Administrazio Publikoari kaltea eraginez (ZKren 307.3 art.).

Azpitipo astundua dagoela joko da, kasu hauetan:

Prestazioen balioa 50.000 eurotik gorakoa denean.

Iruzurra erakunde edo talde kriminal baten barruan gertatu denean.

Pertsona fisikoak edo juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak, tresna fiduziarioak edo paradisu fiskalak edo tributazio gabeko lurraldeak erabiliz Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrekoaren edo delituaren erantzulearen nortasuna ezkatzea edo nortasun hori agerian uzteari trabak jartzea, iruzurreko zenbatekoa ezkatzea edo tributu betebeharrekoaren edo delituaren erantzulearen ondarea zehazteko oztopoak jartzea.

Kasu guztietan, isuna ez da aplikatuko iruzurreko prestazioen zenbatekoa itzultzen bada diruaren legezko interesarekin, bi puntu gehituta, ikuskaritza-jardunak edo zigor-prozedura hasteko jakinarazpena jaso aurretik.

Langileen eskubideen aurkako delituari dagokionez, (ZKren 311), 6 hiletik 6 urterako espetxe-zigorra eta 6 eta 12 hilabete bitarteko isuna ezarri da langileen talde bati lana eman eta Gizarte Segurantzaren araubidean horien alta jakinarazten ez dutenentzat edo, hala denean, lan-baimena lortu aurretik egiten dutenean, betiere, enpresan edo lantokian ukitutako langileen kopurua gutxienez %25ekoa denean 100 langiletik gorako enpresa edo lantokietan, %50ekoa 10 eta 100 langile bitarteko enpresa edo lantokietan, eta plantilla osoa 5 eta 10 langile bitarteko enpresa edo lantokietan.

AZKEN BERRIKUNTZAK OFIZIOKO TXANDARI DAGOKIONEZ

Ondo dakizuen, ofizioko txandaren inguruan Doako Justiziari buruzko 110/2012 Errege Dekretua indarrean jartzean sortutako arazoak direla eta, otsailean berrikuntza ugari izan ditugu.

2012ko azaroaren 22an egindako aparteko batzarrean, Gobernu berriari epe bat ematea erabaki zen gure bidezko aldarrikapenak onar zitzan. Behin epea igarota eta Eusko Jaurlaritzak erantzunik eman ez duenez, gure Batzordeak zenbait neurri hartzea erabaki zuen.

2013ko otsailaren 19an, zirkular bat igorri ziguten eta hartutako neurriak jakinarazi zizkiguten:

- 1.- Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ) behin-betiko ixtea 2013ko otsailaren 19tik aurrera.
- 2.- Guardiako legegariak izendatzeari uztea ostiral guztietan martxoaren 1etik aurrera, etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzukoak izan ezik.
- 3.- Ofizioko txandako izendapenak bertan behera uztea 2013ko martxoaren 1etik aurrera.

Era berean, Bazkunak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Auzien Salan Doako Justiziari buruzko Dekretua indargabetzea eskatzeko demanda bat aurkeztu zuela jakinarazi ziguten. Demanda 2013ko otsailaren 18an aurkeztu zen.

Neurri horiek oihartzun handia izan zuten tokiko komunikabideetan. Albistea berehala jaso zuten, ondorio praktiko garrantzitsuak zituen eta.

Aipatutako neurrien onespenez zenbait zalantza eragin zituen gure kolektiboan. Zalantza horiek ebazteko, Gobernu Batzordea Barakaldo, Gernika, Durango eta Getxo barruti judizialeko bozeramaileekin bildu zen 2013ko otsailaren 25ean. Bileran horretan, bozeramaileei jakinarazi zitzaizkien Eusko Jaurlaritzako negoziazioetan izandako gorabeherak eta Eusko Jaurlaritzak erantzun gogo-betekorik ez zuela eman.

Beraz, eta gure neurriak oso serioak zirenez, Eusko Jaurlaritzak erantzun bat eman zuen.

2013ko otsailaren 28an, Bazkunak beste zirkular bat igo-

rri zigun. Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoen berri eman ziguten, sortutako gatazka konpondu ahal izateko.

Justizia sailburuordeak idatzizko komunikazio bat igorri zuen. Doako justiziaren onura lortzeko izapideak sinplifikatzeko konpromisoa hartu zuen, baita legegariak bete beharreko dokumentazioa sinplifikatzeko konpromisoa ere.

Era berean, legegariak nahitaez esku hartu behar dutenean eta Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kobratu ezin dutenean, laguntza juridiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretako partiden kargura finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. *“Kobraezin”* izenekoen ordainketa bermatzen da etxeko indarkeriaren (egotziak), maularen, trafiko-segurtasunaren aurkako delituen eta adingabeen kasuan, esku-hartzaileek doako justiziaren onura eskatzen edo lortzen ez badute eta emandako zerbitzu juridikoak ordaintzen ez badituzte.

Konpromiso horren aurrean, hartutako neurriak ondorerik gabe uztea erabaki zen. Modu horretan OJZ berehala ireki zen, eta laguntzek eta izendapenek ohiko bideari jarraitu zitoten.

Horrez gain, Errege Dekretua indarrean jarri zenetik lehen aipatutako delituengatik abian jarri ziren prozeduretan ezarritako aitzakia sistema ondorerik gabe utzi zen.

Gu guztiok aurkeztutako aitzakiak bertan behera uztea eraginkorra izateko, Bazkunak eskatu zigun inguruabar hori epaitegiei jakinarazteko.

Kasuan kasuko aitzakia zein epaitegitan aurkeztu eta horrekin harremanetan jarri behar genuen eta aitzakia hori ondorerik gabe geratu zela eta prozeduran behin betiko izendatu gintuztela azaldu behar genion.

Badirudi gatazka konpondu dela, baina oraindik Eusko Jaurlaritzak zehaztu egin behar ditu *“kobraezinak”* kobratzea bermatzeko neurri zehatzak eta izapide burokratikoaren sinplifikazioa. Espero dezagun neurri horiek azkar eta modu eraginkorrean hartuko direla, gure lana berme guztiaren garatu ahal izateko, eta gure interes legitimoen defentsan neurri gehiago hartu beharrean egongo ez garelara.

JATETXEA

GU GEU

José Luis Alegre - Abokatua

